



JAURLARITZAREN KONTSEILUAREN ERABAKI-PROPOSAMENA, EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREAN ETA SEKTORE PUBLIKOAN GARDENTASUNAREN EZARPEN-MAILARI BURUZKO 2017KO BALANTZE-TXOSTENA AZTERTU ETA GARDENTASUNA ETA GOBERNU ONA SUSTATZEN JARRAITZEKO NEURRIAK ONESTEN DITUENA

Gobernu Kontseiluaren 2015eko urtarrilaren 13ko Erabakiaren bidez, Euskal Autonomia Erkideko Administrazioaren funtzionamendu-neurriak onartu ziren, informazio publikoa eskuratzeari, publizitate aktiboari eta gardentasunaren eta gobernu onaren kulturaren aurrera egiteari dagokienez; Gobernu Kontseiluak, halaber, 2015eko Balantze Txostenaren eta 2016ko Balantze Txostenaren berri izateko eta gardentasuna bultzatzen jarraitzeko neurriak onartzeko erabakiak hartu zituen. Akordio horiekin bat etorriz, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak 2017ko Balantze Txostena egin du, erabaki hura hartu zenetik hiru urte igaro ondoren, EAEko Administrazio Orokorrean eta haren sektore publikoan gardentasuna zenbateraino ezarri den aztertzeko, bi arlo hauek kontuan hartuta: publizitate aktiboa eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.

2017ko Balantze Txostenak, erabaki honen eranskin gisa jasota baitago, urte honetan zer nolako aurrerabide handiak lortu diren deskribatzen du, kontuan hartuta Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko 19/2013 Legean ezarritakoa, honako hauei dagokienez: zer informazio argitaratzeko betebeharra dagoen eta informazio hori nola argitaratu behar den, eta informazio publikorako sarbidea izateko eskubidea bermatzea eta nazioarteko gardentasun-estandarrak baliatzea. Horrenbestez, esan daiteke EAEko Administrazio Orokorrak aise betetzen duela arau horretan ezarritakoa, nazioarteko estandarrak betetz, hala nola Nazioarteko Gardentasunak ezarritakoak. Gainera, EAEko sektore publikoa osatzen duten entitate guztiek bete dituzte gardentasun-betebeharrak (organismo autonomoak, zuzenbide pribatuko entitate publikoak, sozietate publikoak, nortasun juridikorik gabeko funtsak, fundazioak, partzuergoak eta irabazte-xederik gabeko beste batzuk). Nagusiki partaidetza publikoa duten entitateen kasuan, administrazioaren baten sektore publikoan sartuta ez badaude, horretan jarraitu beharra daukate EAEko administrazio guztiek; izan ere, oraindik ere entitate batzuek ez dituzte betetzen arauan publizitate aktiboari buruz ezartzen diren betebeharrak guztiak.

Halaber, txostenak aipatzen ditu etorkizunean lanean jarduteko ildoak, honako helburu hauek kontuan hartuta: argitaratutako informazioaren kalitatea hobetzea, informazioa eskuragarriagoa eta ulergarriagoa izatea bultzatzea, datu publikoen

irekitasuna sustatzea, eta Eusko Jaurlaritzak sortu dituen tresnak hedatzea, EAEko sektore publikoa osatzen duten erakundeek erabil ditzaten, hartara baliabideak arrazionalizatzeko, ia berrehun erakundek argitaratutako informazioen multzoari koherentzia ematen laguntzeko, eta herritarrei informazio-sistemetara sarbide komunak emateko. Era berean, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabat gauzatzeko mekanismoetan sartu beharreko hobekuntzak lantzen ditu, informazio hori eskuragarria izan dadin eta benetan herritar guztiengana heldu dadin.

Gaur egun, kontuan izan behar da bertan behera geratu zela Euskal Sektore Publikoaren Gardentasun, Herritarren Parte-hartze eta Gobernu Onaren lege-proiektuaren parlamentuko tramitazioa, zeina gobernu honek 2015eko ekitaldiko azaroan onartu baitzuen—, baina, hala ere, egun Legebiltzarreko tramitazioan dagoela EAEko Gardentasun eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko lege-proposamena. Lege-proposamen horrek gardentasunarekiko konpromisoa irmoa erakusten du; izan ere, lege proiektuak eskakizun maila handiagoa ezarriko du bai argitaratu beharreko edukiei dagokienez, bai informazio publikorako sarbidea izateko eskubideari buruzko eskabideei erantzuteko epeei dagokienez; eta, horrez gainera, legea onartu bezain laster sartuko da indarrean. Hori dela eta, komenigarria da hasitako sustapen-lanarekin jarraitzea —eta azkarrago, egoerak horrela eskatzen badu— eta 2015eko urtarrilaren 13ko erabakian hartu ziren antolamendu-neurriei jarraipena ematea. Horren haritik, XI. Legegintzaldirako Gobernu Programan jasota dago Gardentasunaren sailarteko batzorde bat eratzea: batzorde horrek formalizatuko du sail guztien arteko elkarlana, informazioa argitaratzeko eta azkar eta behar bezala erantzuteko EAEko herritarrek informazio publikorako sarbidea izateko egindako eskabideei. Batzorde hori Gobernu Kontseiluaren 2017ko uztailaren 11ko erabakiaz sortu zen, eta jada erabateko funtzionamenduan dago. Halaber, autonomiako legerik ez dagoen artean, irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren bidez, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea sortu zen: organo independentea da, eta bere egitekoen artean dago erreklamazioak ebaztea, halakoak aurkezten direnean EAEko instituzio komunek eta lokalek informazio publikorako eskabideak (espresuki edo ustez) ukatzen dituzten kasuetan. Horren kudeaketari buruzko informazioa ere 2017ko Balantze Txostenean dago.

2017ko balantze-txostena GARDENA – Eusko Jaurlaritzaren Gardentasunaren atarian argitaratuko da, Gobernu honek kudeaketaren gardentasunerako duen borondatearen adierazpide izan dadin.

Horrenbestez, Lehendakariak proposatuta, eta eztabaida egin ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak hau onartu du:

ERABAKIA:

Lehenengoa.- 2017ko balantze-txostenean jasotako informazioaz jabetzea, EAEko Administrazio Orokorrean eta sektore publikoan gardentasunaren ezarpen-mailari buruz, erabaki honen eranskinean jasotakoaren arabera.

Bigarrena.- Gardentasuna eta gobernu ona bultzatzen jarraitzea, 2017ko Balantze Txostenean adierazitako lan-ildoak hedatuz eta behar adina jarduera eginez, EAEko sektore publikoan eta partaidetzako entitateetan —nagusiki halakoak izan gabe ere— behar bezala betetzeko gardentasunari, informazio publikorako sarbideari eta gobernu onari buruzko lege-proposamenean ezarritako guztia, publizitate aktiboari eta informazio publikorako sarbideari dagokionez.

Hirugarrena.- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren esku uztea erabaki hau gauzatzea, hura arduratzen baita berrikuntza publikoko proiektuak sustatzeaz (bereziki, *Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoko* I. ardatzekoak, gardentasunaren eta gobernu onaren alorrekoak —Jaurlearitzaren Kontseiluak onartu zuen Plana, 2017ko abenduaren 12ko bileran—) eta hura baita ZUZENEAN Herritarrentzako Zerbitzuaren arduraduna, 2015eko urtarrilaren 13ko akordioa hedatzearekin jarraitzeko. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako sail guztiekin batera —sailek gardentasunaren sustatzaile izan beharko dute atxikita dituzten eta parte hartzen duten sektore publikoko entitateetan, orientabide orokorren baitan—, publizitate aktiboa ezartzea eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ematea bultzatuko eta koordinatuko du. Era berean, erabaki hau onartu eta urtebetean gehienez ere, gardentasunaren bi alderdien bilakaerari buruzko balantze bat aurkeztuko du Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak.

Laugarrena.- Erabaki hau eta dagokion eranskina argitaratzea GARDENA-Gardentasunaren atarian, gobernu honek gardentasunarekin eta kontuak ematearekin duen konpromisoaren adierazgarri izan dadin.

Igor bekio Jaurlaritzaren Kontseiluari

Vitoria – Gasteiz, 2018ko ekaina

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua
Sinadura: Josu Iñaki Erkoreka Gervasio